



Lakuntzako eraikinak lehen aldiz erabiltzeko lizentziak arautzen dituen udal ordenantza. Behin betiko onespena

Lakuntzako Udalak, 2006ko urriaren 27ko osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Lakuntzako eraikinak lehen aldiz erabiltzeko lizentziak arautzen dituen udal ordenantza. Onespenaren erabakia 2006ko 138. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, azaroaren 17an.

Jendaurreko epean alegaziorik aurkeztu ez denez, behin betikoz onetsi da eta ordenantza osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN ematen da argitara, behar diren ondorioak izan ditzan; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu zuen hartan, xedatutakoari jarraikiz.

Lakuntzan, 2008ko uztailaren 21ean.-Alkatea, Jose Ramon Garin Lizarraga.

LAKUNTZAKO ERAIKINAK LEHEN ALDIZ ERABILI EDO OKUPATZEKO LIZENTZIAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

I. KAPITULUA

Xedea, helburua eta aplikazio eremua

1.-Xedea. 1. artikulua. Ordenantza honek eraikinak lehen aldiz erabili edo okupatzeko lizentziarako baldintzak eta prozedura ezartzea du xede, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 189. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

2.-Eraikinak. 2. artikulua. Ordenantza honi dagokionez, eraikintzat hartzen dira ondoko obrak, hirigintzako lizentzia baten babesean eginak:

- a) Etxe berriak, salbu eta eraikuntza txikiak, oin bakarrekoak, eraikuntzaren nola teknikaren aldetik munta gutikoak, etxebizitzarako edo erabilpen publikorako ez direnak.
- b) Dauden eraikinen egiturak handitu, zaharberritu nola berritzetik sortzen direnak.
- c) Dauden eraikinen erabilera berariazkoak aldatzea.
- d) Etxebizitza berriak sortzea edo daudenetan banaketa nabarmen aldatzea.

3.-Helburua. 3. artikulua. Lehen aldiz okupatu edo erabiltzeko lizentziak honako helburu hau baizik ez du:

- a) Altxatutako eraikina eta aldi berean egin den urbanizazioa, halakorik bada, proiektu teknikoaren eta bere garaian emandako hirigintza lizentziako baldintzen arabera egin direla egiaztatzea.
- b) Eraikitakoak bizigarritasun eta higiene baldintzak betetzen dituela ziurtatzea.
- c) Eraikina erabilera jakin baterako izan daitekeela baieztatzea.
- d) Eraikitzaileak, hirigintzako ekipamenduari zein elementuei kalte egin badie, lehengoratu dituela ziurtatzea.

II. KAPITULUA

Baimenen araubidea

4.-Eskabidea. 4. artikulua. Obrak amaituta, eraikinak lehen aldiz okupatu edo erabiltzeko lizentzia eskuratzeko interesa dutenek eskaera aurkeztuko dute, Lakuntzako Udalari zuzendua; eskaerak hurrengo datu hauek izanen ditu:

- a) Interesdunaren edo, hala bada, ordezkatzaren duenaren izen-abi- zenak.
- b) Lizentzia zein eraikinetarako eskatzen den, harexen datuak eman beharko dira, argi eta garbi zehazturik.
- c) Tokia, data eta eskatzailearen edo haren ordezkariaren sinadura.

5.-Aurkeztu beharreko agiriak. 5. artikulua. Interesdunek eskabidearekin batera hurrengo agiri hauek aurkeztuko dituzte:

- a) Aginduzko obra lizentziaren fotokopia.
- b) Obrak eta, hala bada, urbanizazioa, onetsitako proiektu teknikoaren eta obren lizentziaren arabera bukatu direla dioen ziurtagiria, teknikari eskudunak egina, zeinetan adierazi beharko baita higiezinak okupatzeko beharrezko baldintzak betetzen dituela.
- c) Obra bukaerako aurrekontua eta planoak, hasierako proiektuan aldaketak egin badira.
- d) Hirilurren gaineko kontribuzioan alta eskatu dela dioen ziurtagiria.

6.-Lizentzia emateko organo eskuduna. 6. artikulua. Lizentzia emateko eskumena alkateari dagokio.

7.-Tramitazioa. 7. artikulua. Interesdunak eskaturik prozedura hasi ondotik espedientearen ofizios eramanen da aurrera bere eginbide guztietan, eta beharrezkotzat jotzen diren txosten guztiak eskatuko dira prozedura honi jarraituz ebazteko:

- a) Udalaren zerbitzu teknikoari txostena eskatuko zaie, eta hartan adieraziko da: obrak proiektu teknikoaren eta emandako hirigintzako lizentziaren arabera egin diren; obren ondorioz ukituta gelditu ahal izan diren hirigintzako elementuak eta hiri ekipamendua lehengoratu diren; baldintzak betetzen dituen, segurtasunaren, higiezinaren eta apainketa publikoaren aldetik; eta eraikinak eman nahi zaion erabilera izaten ahal duen.
- b) Aipatu txosten horren ondorioz, onetsitako proiektuaren gaineko aldaketak badirela egiaztatzen bada, egin den arau-hauste mota eta, ahal bada, horren legezkatzea adierazi beharko dira txosten teknikoan.

8.-Ebazpena. 8. artikulua. 1. Alkateak hilabeteko epean ebatzi beharko du eskaera, udal bulegoetan sarrera ematen zaion egunetik hasita.

2. Onartutako txostenak eta irizpenak ebazpenerako arrazoitzat hartuko dira, ebazpenaren testuari gehitu edo eransten zaizkionean.

9.-Isilbidea. 9. artikulua. Ebazpenerako epea agortzen bada alkateak ebazpenik eman gabe, eskaera baietsitzat hartuko da, administrazioaren isilbide positiboa dela-eta, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 42 eta 43. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

10.-Eraikinaren titularren eta argindarra, ura eta gasa banatzen dituzten enpresen betebeharrak. 10. artikulua. 1. Lehen aldiz erabili edo okupatzeko lizentzia eskuratu aurretik eraikinaren titularrek ez dute eraikina okupatzen ahal.

2. Eraikitako higiezin osorik edo haren zati bat besterentzean, hartzaileei, zalantzarako tarterik gabe adieraziko zaie lehen aldiz okupatzeko lizentziarik ez dutela, hura besterentzerakoan eskuratu ezean.

3. Argindarra banatzen duten enpresek, hornidura horri dagokionez, aplikatzen ahal zaizkien legezko arauak men egiten diete, obretarako behin-behineko kontagailuez eta etxebizitzak lehen aldiz okupatzeko lizentzia aldeztu aurretik eskuratu beharraz den bezainbatean.

4. Obretarako ur-hornidura, hirigintzako aginduzko lizentzia eskuratu ondoan, enpresa hornitzaileari dagokio, zerbitzu publikoaren titularra baita; eta behin-behinekoz emanen da, hirigintzako lizentziak indarra duen bitartean bakarrik.

5. Lizentzian obren amaierarako eman epea eta, halakorik bada, bidezko luzapena edo luzapenak agorturik, alkateak hornidura eteteko eskatuko die konpainia hornitzaileei, eta interesdunei hamar egun lehenago gaztigituko.

6. Debekatua dago obretarako emandako ur-hornidura bertzelako jardueretan erabiltzea, etxean batez ere.

7. Uraren enpresa hornitzaileak ez ditu urez hornitzen ahal lehen aldiz erabiltzeko lizentziarik ez duten eraikinak.

8. Orobat, lehen aldiz erabiltzeko lizentziarik ez duten eraikinetan etxean erabiltzeko gasaz eta telefonoaz hornitzen duten enpresek zerbitzu egiten ahalko diete lehen aldiz okupatzeko lizentziarik ez duten eraikinei.

III. KAPITULUA

Zehapen araubidea

11.-Arau-haustek eta zehapenak. 11. artikulua. Hirigintzako arau-haustea izanen da lehen aldiz okupatzeko aginduzko lizentziarik gabe eraikinak lehen aldiz okupatzea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Legearen 189. artikulua eta ondokoek, Lege beraren 199, 209 eta ondoko artikuluei dagokienez, xedatutakoarekin bat.

a) Aurreko lerroaldean aipatu arau-hausteagatik zehapena 300dik 6.000 euro bitarteko isuna izanen da, zehapen espedientearen instrukzioan eta ebazpenean egiten den tipifikazioaren ariora Lurraldearen Antolamenduari buruzko Foru Legearen 211.11 artikuluaarekin bat heldu bada.

b) Irekitako espedienteari jarraituz jarduera hori ez bada legeztatzen ahal, haren tipifikazioa arau-hauste larria izanen da, Lurraldearen Antolamenduari buruzko Foru Legearen 212.13 artikuluan xedatzen denaren ariora, eta haren zehapena 6.000tik 60.000 euro bitarteko isuna izanen da, lege beraren 215. artikuluan xedatzen denari jarraituz.

12.-Ordena juridiko urratua zuzentzea. 12. artikulua. Udalak inoiz ere ez dio uzten ahal urratutako hirigintzako ordena zuzentzeko neurriak hartzeari, eta okupazioaren jarduera berehala bertan behera utz dadila xedatuko du, badaezpadako neurri gisa.

13.-Erantzuleak. 13. artikulua. Eraikinak lehen aldiz lizentziarik gabe okupatzen badira, obraren sustatzaileak eta okupazioa egiten duenak izanen dute erantzukizuna, pertsona bera ez direnean; isunak ere, zein bere aldetik doaz.

14.-Zehapenak ezartzeko organo eskuduna eta ahalmena. 14. artikulua. 1. Zehapen prozedura ebazteko organo eskuduna alkatea da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.K) artikulua xedatuarekin bat.

2. Zehapen ahalmena erabiltzeko, apirilaren 3ko 85/1995 Foru Dekretuaren 72. artikulutik 78.eraingo ezarritako prozedurari jarraituko zaio, eta bertzenaz aplikatuko da Zehapen ahalmena erabiltzeko prozeduraren gainean abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Erregelamendua.

IV. KAPITULUA

Araubide juridikoa

15.-Araubide osagarria. Ordenanatzat honetan aurreikusi ez den orotan hona indarra duten aginduak: Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea; apirilaren 3ko 85/1995 Foru Dekretua, zeinaren bidez Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onetsi baitzen; Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Legea; Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretua.

AZKEN XEDAPENA

Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legearen 65.2 artikulua aplikatuz, ordenantza honek, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritako prozedurarekin bat behin betikoz onetsitakoan, indarra hartuko du eta ondorio juridiko osoak izanen ditu, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN testua oso-osorik argitara eman ondoan.

Ordenantzak berariaz aldatu edo indargabetu arte izanen du indarra.

Iragarkiaren kodea: L0811759